




Mikel Yarza

**Telebistako
langilea**

Zergaitik Ermua edo ermuar

Artikulu hau idazteko proposatu zidatenean, baietz esan nuen erraza izango ez zela jakin arren. Zergaitik Ermua, edo ermuar edo... Eta buelta asko eman ondoren horretarako arrazoi garbirik ez dagoela konturatu naiz. Ez dagoela gure eskuetan ermuar izatea. Hori inposatua datorkigu. ermuar edo eibartar, bilbotar edo donostiar, paristar edo calcutarra, ez da gure aukera izango. Patuak honako edo halako egiten gaitu, hemen go edo hango. Eta ixil-ixilik onartu egiten dugu gure izaera. Eta gehienetan gure nortasunarekin harro izan beharko genuke, hura perfektua ez izan arren. Ba... geurea delako. Eta kitto. Eta zenbat eta inperfektoago eta harroago. Inperfekzioak eskatzen digun esfortzuaz harro.

Zergaitik ematen digu hainbeste buruhauste euskarak? Zergaitik hainbeste ahalegin gure hizkuntzarengatik? Maite dugulako eta egoera kezkarria dagoelako ote? Ala geurea baino ez delako? Alzheimerdun guraso gor, zimur eta ezindu horiek maite ditugu. Geureak direlako. Hainbeste burukomin ematen digun seme ihesdun drogazale horrek, zer du? Semea dugu. Anaia. Biloba.

Zer dauka Ermuak, zulo

zikin eta zaratsatu honek, bertara hain estu lotzen gaituena? Ezer berezirik. Geure herria da. Geureak bertan dira.

Zein herri polita den Eki-dazu, kostaldekoa, euskaldun petoa, bizikletaz lanera joateko aldaparik gabekoa, eta ume jostalariz betetako parkez hornitua. Ermuar ez dagoen guztia du Ekidazuk. Haraxe nahi nuke nik. Baina han ez daude hemengoak.

Zoriontasunaren bila ematen dugu bizitza eta hura gure jendeak baino ezin digu eskeini. Kanpora goaz lan bila, eta etxe bila, eta arnas bila, baina ahal dugunean herrira gatoz geureengana. Hemen ez dago ezer baina dena dugu.

Igorrek munduko txapelketa irabazi zuenean, nork ez zuen sentitu goitik beherako zirrara gozoa? Ba ermuarron zirrara haundiagoa.

**"Zer dauka
Ermuak? ezer
berezirik ez,
geure herria
da, geureak
bertan dira"**




IKASTOLA
33 urte Ermua
euskalduntzen



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko


**Euskalduna izatea
pekatua bada...**

Zatoz!



Kardenal Orbe plaza
943 17 45 84

PRO



-ARRAINDEGIA
-ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA